



adu 'zoria'	«Ez izan adu txarrekoa.»	(13)
ahalke 'lotsa'	«Egiazkoa zen Enma Zunzen tonua, egiazkoa ahalke , egiazkoa gorrotoa.»	(39)
aienatu 'desagertu'	«Beñat parte txarrekoa zenbait aste geroago aienatu zen, bai hiritik bai gure bizitzatik.»	(24)
aieru 'susmoa'	«Agian amaren aierua bete egin da; agian berandu nabil.»	(55)
aitatxi 'aitita, aitona'	« Aitatxi , Carlos Maria Irisarri, 36ko pistolaria.»	(28)
aitzineko 'aurrekoa'	«R-5 bat zen, Arana Goiri sortu aitzinekoa .»	(25)
akuilu aski 'arrazoi nahikoa'	«...mehatxuak eta pintadak akuilu aski izanen zirela morroia Madrilgo bidean emateko.»	(32)
akutu 'zorrotza, larria'	«Baliteke barne desoreka akutua adieraztea, edo bizitzari zentzua bilatu ezina.»	(71)
aldarri 'erabakia'	«...heriotzara kondenatzeko aldarria idatziko zuen.»	(77)
aldarte 'umorea'	«Nolakoa ikerketa-epailearen aldarte , halakoa izango zen eskakizuna.»	(77)
aleungarren 'milagarrena'	«... aleungarren saltokiko atean jendearen artean beso-ukaldika ari ginen...»	(27)
alta 'izan ere'	« Alta , orduan hain zen xumea eta errauskorra!»	(54)
alu 'inozoa, kokoloa'	«...zer eta zabor UPNzale bilakatzeko bidean, alu ustel ile-gorri batek garun-lixiba eginda!»	(31)
arbuigarri 'gaitzesgarria'	«Belarri bat txikia zeukan arbuigarria ia, ileek janda.»	(17)
areago 'harago, urrunago'	«Hau guztia gutxi balitz, erromatar autodidaktaren jakintza areago doa...»	(65)
arranpa 'zurrunbiloa'	« Arranpa leun bat, besoetan hanketan bereziki.»	(92)
asaldatu 'nahastu, aztoratu'	«Denak dira urrikaltzen eta aldi berean asaldatzen enmari gertatutakoaz...»	(41)
asaldura 'larridura'	«Albertoren asaldura gero eta handiagoa zela.»	(92)
asebeteta 'gutziz beteta'	«Eta pozik geratuko naiz. Eta asebeteta .»	(21)
asperdura 'gogaimena'	«...eta gizonaren asperdura , eta emakumearen ile horia eta aurpegia, eta aurpegi hori...»	(94)
aste bi bai 'gutxienez aste bi'	«Orain dela aste bi bai . Badakizu zelakoak diren mezu horiek...»	(15)
asto beltzarenak erran 'kristorenak esan'	«Emazteak bereak eta asto beltzarenak erranda , damutua agertu behar izan nintzaion...»	(30)
atxiki 'mantendu, eduki'	«Jon eskalatzaillearekikoak goibel eta tristexko atxiki zuen uda guztian.»	(26)
ausaz 'itxuraz, agian, beharbada'	« Ausaz , amak esaten duena gertatu zait: hanka handiak eta buru txikia dudala...»	(58)



aztoratu 'asaldatu, larritu'	«Erretzeari utzi nahi nion bolada hartan, eta aztoraturik nenbilen.»	(45)
bafada 'kealdia'	«Baina segidan alboko gizonaren ke bafadak eztula eragin dio eta erdeinuz begiratu dio.»	(99)
bakan 'urria'	«Bera bezalako maisuak ez direla usu izaten eta Borgesen idazkera bera dela bakan. »	(39)
barreiatu 'sakabanatu'	«Hirian ere albistea erraz barreiatu da eta, antza denez, huelga bertan behera geratu behar dela erabaki dute...»	(41)
barrundatu 'barruntatu, susmatu'	«...lehen itxura batean barrunda litekeen arrazoa baino garrantzi handiagorik.»	(67)
bermatu 'sostengatu, ziurtatu'	«Zuhaitz baten enborrean bermatu nuen bizkarra.»	(47)
berretsi 'egiaztatu'	«Errespetu guztiarekin, baina gizon hori burutik eginda dagoela berresten dut, jauna.»	(78)
bertze 'beste'	«Gau batean, bertze ibilgailuei biderik eman gabe sartu zen biribilgune batean...»	(23)
berun 'pisu astunena duen metala'	«...eta Pariseko neska horren istorioen oroimenak berunezkoak bailiran sentitzen zituen eta, barne-barnean.»	(84)
besta 'jaia'	«Liburuak, apunteak, bestak ... Erantzukizun eta bizimodu berrien oparizat jo nuen gogoaren berpizte hori.»	(26)
bestenaz 'beste alde batetik,	« Bestenaz , ederki egin du lo, ezertan ere pentsatu gabe.»	(41)
beta 'aukera, proportzioa'	«Gaur ez du oihuka irteteko betarik izan.»	(64)
birao 'hitz itsusia, madarikazioa'	«Haren biraoak eta hitz ustelak!»	(98)
bolada 'aldikada'	«Erretzeari utzi nahi nion bolada hartan, eta aztoraturik nenbilen.»	(45)
bortzekoa luzatu 'eskua eman'	«Zainei nola edo hala gain hartuz, bortzekoa luzatu nion.»	(27)
botika 'farmakotegia'	«...zapora garrantzeko goxoki nazkagarri batzuk erosten nituen botikan. »	(46)
deus 'ezer'	«Ez zuen deus ikustekorik gure alabaren bihotza anarteraino hunkitu zuten ikastolakumeekin.»	(27)
dohain 'ahalmen berezia'	«...zaila duk gero dohain hori erabili gabe bizitzea.»	(89)
doi 'zehatza, justua'	«...web orrian jakingarri zehatzak eskaintzen zituzten auto bat errausteko erabili beharreko gasolina dosi doiaz. »	(33)
dolu 'heriotzezko min agerkaria'	«Inork ez du dolurik egingo haren alde.»	(39)
durundi egin 'oihartzuna, burrunba egin'	«...oihartzun siniestro batez egiten zuten durundi bere burmuinean.»	(87)
ei 'omen'	«Loewenthal harrizkoa ei zen eta.»	(41)
ekarki zidan 'ekarriko zidan'	«Kaxa bat txakolin ekarki zidan opari.»	(33)
emagaldu 'puta, meretriza'	«...ea Nordstjärnan ontziko marinelen aurrean emagaldua bailitzan aurkezten du bere burua.»	(37)



emaki 'ematen zizkion'	«Nekatu itxuran beti, oinak herrestan ekartzen zituen, zangoak altxatzeak lanak emaki nonbait.»	(23)
engaiatu 'konprometitua'	«Bertze xehetasun bat gehiago: Jon ere lagun engaiatua zen...»	(25)
enpake 'kemena'	«Eta enpake handia ematen die horrek euren adierazpenei.»	(18)
enparau 'gainontzekoak',	«Hogeita sei lagunetatik hogeiri heriotz-zigorra eskatu die. Beste enparauei hogeita hamar urteko kartzela.»	(78)
eraldatu 'itxuraldatu'	«Hasieran, bion artekoa oso ondo zihoan; eraldatu egin ninduen, eta onerako.»	(56)
erdeinu 'mespretxua, gutxiespena'	«Baina segidan alboko gizonaren ke bafadak eztula eragin dio eta erdeinuz begiratu dio.»	(99)
errauskor 'apurkorra'	«Alta, orduan hain zen xumea eta errauskorra! »	(54)
errukitu 'urrikaldu''	«...ala berataz errukitu eta libratu nahi izan zuen.»	(79)
erudito 'jakinduria handikoa'	«...Frei Nothonen gainerako zeregin eruditoak ahantzi gabe.»	(67)
eseki 'jarri,eskegi'	«Hasieran, piztu gabeko zigarroak esekitzen nituen ezpainetan.»	(45)
eskafandra 'murgilketariaren jantzia'	«Trapuz loturiko eskafandra herdoilen pusketekin jolasten ziren.»	(51)
eskortzo 'luzetara jarrita'	«...eskua esekitokien artetik luzatu eta, eskortzoan , dirua jaso zuen taxistak...»	(83)
eskukarrotxo 'eskuz eroateko gurditxoa'	«...bai azken bidaian Londresetik ekarritako eskukarrotxoari. »	(98)
eskumen 'eskubidea'	«Ugazabaren eskumena , ezta?»	(7)
ezelango 'inolako'	«...pentsatzen egon ostean konturatu naiz ez daukadala ezelango gorrotorik.»	(19)
ezen 'zeren'	«...futitu egingo zela Borges Enma Zunzen zorigaitzaz, ezen idazleari dagokion nekerik txikiena inondik inora hartu gabe...»	(44)
ezereza 'hutsa, hustasuna'	«Eta ni isilik geratu naiz. Ezerezari begira.»	(61)
fiskeria 'huskeria'	« Fiskeriez aritu ginen, bazkariaz, ikasketez-eta.»	(29)
forzeps 'kirurgian erabiltzen den	«Nik forzepsa aholkatzen dizut.»	(70)
franko 'oso'	«Lehenbiziko bi orduetan franko ongi joan ziren gauzak.»	(29)
futitu 'kezkatu ez'	«... futitu egingo zela Borges Enma Zunzen zorigaitzaz, ezen idazleari dagokion nekerik txikiena inondik inora hartu gabe...»	(44)
gaitzerdi 'eskerrak!'	«Eta, berandu ez bahabil, gaitzerdi. »	(56)
garun lixiba egin 'norberaren ideiak garbitu'	«...zer eta zabor UPNzale bilakatzeko bidean, alu ustel ile-gorri batek garun-lixiba eginda! »	(31)
gelaxka 'gela txikia'	«Lisboako portu ondoko etxe zaharkitu bateko gelaxka ziztrin batez, eta Angolatik heldutako neska batez...»	(83)



gibelat 'atzealdera'	«Ilea ongi moztua zeraman eta gibelat orraztua.»	(27)
gogoangarri 'gomutagarria'	«Borgesek esaldi gogoangarriz kontatzen du...»	(37)
goragale 'botagura'	«Eta, autoari begirik kendu gabe, goragalea nola, halatsu sentitu du amorrazio gorria sabeletik gora igotzen.»	(99)
hagitz 'biziki, oso'	«...ikuspegi psikofisiko hagitz interesgarri batetik.»	(65)
halabehar 'zoria, patua'	«...Enma Zunz halabeharraren ondorio izan zen aldi berean, izan zela halabeharra Enma Zunzen ondorio.»	(36)
hanpatu 'handitu'	«...eta hori zen Albertok behar zuena, ez aitaren hitz hanpatuak .»	(91)
hasperen 'zinkuria, zizpurua'	«Aitak, leihotik begirik kendu gabe, hasperen egin du...»	(98)
hein 'neurria'	«Neronek eman diet albistea banaka iritsi diren heinean .»	(64)
herresta 'arrastaka'	«Nekatu itxuran beti, oinak herrestan ekartzen zituen, zangoak altxatzeak lanak emaki nonbait.»	(23)
higatu 'eralgi, gastatu'	«...denborak guztia higatzen du, hori ondo zekien taxistak...»	(82)
higuin 'nazka'	« Higuinez eta minez, modu gaitz horixe erabiliz erraten dio agur Enmak birjintasunari.»	(37)
horaila 'horixka'	«...goizeko haize epelak ile solte horaila laztantzen diola.»	(97)
hordigarri 'mozkorgarria'	«...prest neukan barrua kitzikatzeko, animua pizteko, maitasun epel hordigarria eskaintzeko.»	(54)
ikonoklasta 'izaki irudiak onartzen ez dituen'	«...boterea gutxi estimatzen zuena, ikonoklasta sutsua.»	(66)
ikusi ez beste barik 'ikusita bezain laster'	«Hori esan dit ikusi ez beste barik .»	(20)
ipurdiz goiti eman 'erabat amaitu'	«...bigarren botila ipurdiz gora emana baikenuen orduko.»	(30)
irri-karkaila 'barre algara'	«Lineaz bertzaldetik, lagunaren irri-karkailak ailegatu zitzaizkidan...»	(32)
iruzur 'tranpa, azpikeria'	«...eta papeleoan iruzur eginez bidali zituela denak.»	(63)
izpitxo 'errainua'	«...gaitza uxatuko ote zuen itxaropen izpitxo galdu gabe.»	(86)
izutu 'beldurtu'	«Bat edo beste izutu egin dela iruditu zait. Une batez. Inor ez tristatu, ordea.»	(64)
jabetu 'konturatu'	«Albertoren aita berehala jabetu zen semaren kezka...»	(88)
jaramon egin 'kasu egin'	«Asmatu ez nuela aitortu beharrak, jaramon egin behar niela aitortu beharrak.»	(56)
kandido 'sinesbera'	«Konturatu naiz guztiz pertsona kandido naizela ni.»	(19)
karkaxak 'gorroa, eztarriko mukia'	«...osasun arazoak izan nituen, itolarriak, karkaxak , ezinegona...»	(59)



kasta 'jatorrikoa, maila soziala'	«Zerbitzarien kastakoak gara gu.»	(8)
kausitu 'topatu'	«Enmak esker oneko zantzuak kausitzen ditu kalean zehar gurutzatzen zaizkion herritar guztiengan.»	(42)
keru 'kiratsa'	«...atzetik zetorkion keruak taxi osoa hartzen zuen, eta gauza asko azaltzen zizkion.»	(83)
kieto 'geldi-geldi'	«...errepidean kieto geratu zen arte.»	(94)
kitzikatu 'berotu'	«...prest neukan barrua kitzikatzeko , animua pizteko, maitasun epel hordigarria eskaintzeko.»	(54)
koitadu 'gaixoa'	«Emakumeen arteko elkartasun bereziaz babestu egin nahi dute koitadua .»	(41)
konkiloker 'astakirtena'	«...kontent jakin ere, ez nuela gehiago ikusiko konkiloker hura.»	(24)
kontuak atera 'harridurazko esamoldea'	« Kontuak atera , taxi driver ere ez dut ikusi oraindik...»	(15)
kulunkatu 'zabunkatu'	«Burua alde batera kulunkatu zuten.»	(50)
laido 'iraina'	«Egiazkoa, halaber, jasandako laidoa ...»	(39)
likitsu 'lirgindatsua'	«...eta zerbait likitsua , itsaskorra ukitu du.»	(100)
lirdingatsu 'itsaskorra'	«Baina oroitzapenak iraun egiten zuen, zehatz eta lirdingatsu , bere baitan.»	(83)
loria 'aintza'	«...Beti gura izaten zuen huraxe, bere loriaren mesedetan.»	(44)
makulu 'herrenen bastoiak'	«...eta makuluak lapurtzen dizkiote elkarri eta besteen hagin postizoeekin ping-pongean ibiltzen dira...»	(20)
malenkonia 'tristezia'	«...eta malenkoniaz gogoratu zituen garai haiek, usainarena baino lehenagokoak.»	(93)
mardul 'potoloa'	«...nire liburuki marduletan , filosofo vienarraren psikologia, poesia, filosofia eta matematika aztertu baitzuten...»	(65)
men egin 'obeditu'	«Nekatuta zegoen aitaren esanei men egiteaz .»	(90)
mendekotasuna 'menpetasuna'	«...aitaren mendekotasunari ihes egin ahal izango zion azkenean.»	(91)
misanthropia 'harremanak gogoko ez	«...baina haren misanthropiak zerikusi handi samarra izango du huts egite larri honetan...»	(66)
motel 'mutila, gizona, txo'	«Leku eroso duk motel : itxarotea, ez duk besterik egin behar.»	(81)
muzin egin 'uko egin'	«...eta muzin egitea irrati-taxitik hel zekizkiokeen estaziorako deiei.»	(86)
nabardura 'xehetasuna'	«Ordu arte, egunero handik igaro arren, ez nintzen nabardura horretaz ohartu ere egin.»	(47)
nardagarri 'enpagugarri, nazkagarri'	«Egitekoa nekagarri eta lekua nardagarri , ez nengoen umore oneko.»	(27)
neskatiko 'neskatila'	«Niregana bihurtu ziren neskatikoaren begi borobil ilunak.»	(28)



nire golkorako 'neure artean'	«Pareta grisa botila huts erraldoi baten modukoa zela pentsatu nuen nire golkorako .»	(47)
ñimiño 'txiki-txikia'	«Urteetan zehar oroitzapenik ñimiñoenak apuntatzen ibili behar izan nian koadernotxoetan, gero ez ahazteko.»	(88)
ondare 'ondasuna'	«Hala erabaki genian aspaldi, taxiston batzarrean, eta ezin diok ondare horri uko egin.»	(87)
onddo 'perretxiko mota'	«...paseo luzeak ematen eta, garaia zenean, onddoak biltzen.»	(87)
ondo 'hondakina'	«Gertaerak ondo a utzi zuen etxeko giroan.»	(30)
oparo 'ugaria, joria'	«Ez dela maiz aurkitzen antzeko irudimen oparorik eta halako luma treberik bazterretan.»	(39)
oraino 'artean'	« Oraino ez nekien handiagoak entzuteko ginela.»	(31)
ortziral 'ostirala, barikua'	«...astero-astero, ortzirala hurbildu ahalean.»	(25)
orube 'lursaila'	«Antza denez, okupa batzuk iritsi ziren orubera lehenik.»	(50)
ostrukak jeztera bidali 'antzarak ferratzera bidali'	«... ostrukak ferratzera bidali baininduen.»	(26)
otu 'bururatu'	«Tabako dendatik ateratzean, paseo bat ematea otu zitzaidan.»	(48)
pagotxa 'aukera ezin hobe'	«Jon ere lagun engaiatua zen; mendiarekin, ordea. Ikusiak ikusi, pagotxa .»	(25)
partiketa 'banaketa'	«...eta Elguea dendan janari partiketan eskainiko omen dioten lana onartzera abiatu da.»	(98)
peto-peto 'ezin hobe, jator-jatorra'	«Harkaitz zorionekoa Burlatako ale peto-peto a zen.»	(23)
petral 'zirtzila'	«Alabaina, zeinek egiten dio kasu nirearen gisako petral bati.»	(58)
pitokeria 'ergelkeria'	«Edo Maddiren aurpegiaren lilurak morroiaren pitokeriak entzunda.»	(30)
piura 'itxura'	«Haren piuratik , begirada dut oroitzapenik tinkoena: hotza zen...»	(24)
pragmatiko 'praktikoa, eraginkorra'	«Giza gorputza oso pragmatikoa da, erabiltzen dena sendo, tamaina ederrekoa...»	(75)
profil 'perfila, soslaia'	«Hizkuntz eskakizuna 0 profilera jaitea izan zen lehen neurria.»	(29)
prometagarri 'etorkizun onekoa'	«Dagoeneko, hipotesi gutxi geratzen dira. Eta ez oso prometagarriak .»	(12)
putzil 'ziztrina'	«Orain ere ibili haiz putzil horrekin!»	(55)
sastako 'atoan, berehalakoan'	«Nire eskuak, sastakoan , hormaren tenperatura bereganatu zuen.»	(27)
sona 'ospea, entzutea'	«Aldizkari xumeetan hasi, eta segituan sekulako sona jaso zuen.»	(66)
sor eta lor 'harrituta'	« Sor eta lor gelditu nintzen, eztarri bete birao.»	(30)



sushi 'janari japoniarra'	«...eta Adelek biguin dio arrain gordinari. Sushirik ez, beraz.»	(9)
sustantzia gutxiko 'mami gutxikoa, garrantzi'	«...beste 47 pertsonaren ordenagailuetara heldu zela sustantzia gutxiko mezu hura.»	(16)
sustengatu 'eutsi'	«Elkar sustengatu behar dugu gai latz hauetan.»	(8)
teink 'tinko-tinko'	«Tentsioan itxaron zuen Albertok, eskuak bolantean teink .»	(93)
tema 'seta'	«Orobat, sekulako tema hartu zuen...»	(30)
tentu 'kontu handiz'	«Ez dakit, tentuz ibili behar dut. Bestela Henrik pentsatuko du tripazain hutsa naizela.»	(10)
tinkatu 'irmotu'	«Bai horixe. Behin Henriren eskua tinkatu , gure arazo guztiak konponduta...»	(8)
tripazain 'tripaundia'	«Ez dakit, tentuz ibili behar dut. Bestela Henrik pentsatuko du tripazain hutsa naizela.»	(10)
tristatu 'goibeldu'	«Bat edo beste izutu egin dela iruditu zait. Une batez. Inor ez tristatu , ordea.»	(64)
tristexko 'betilun antzean'	«Jon eskalatzailerekoak goibel eta tristexko atxiki zuen uda guztian.»	(26)
trufa 'burla'	«Denek egiten zidaten trufa bulegoan, baita Sofiak ere.»	(45)
tupustean 'bat-batean'	«Barruko hutsunea kearekin betetzeko beharra sentitu nuen tupustean .»	(48)
txapitula 'zutabearen gainaldea'	«Vosgues plazako txapitula estu batez hitz egiten ziona...»	(83)
txepel 'zentzu bakoak'	«Aholku txepelak eman bazizkidan ere...»	(45)
txepel 'kokoloa'	«Zu bai txepela . Ze arrain eta arrainondo. Sushia ez da gordina.»	(10)
ugazaba 'jabea'	« Ugazabaren eskumena, ezta?»	(7)
urdindu 'lizundua'	«...hainbat urtetako gorrotuak, gorrotu urdinduak , hitz batean esan behar bada.»	(19)
urrikaldu 'errukitu'	«Denak dira urrikaltzen eta aldi berean asaldatzen Enmari gertatutakoaz...»	(41)
usnatu 'susmatu'	«...eta onuragarria Albertorentzat: ordura arte " usnatutako " oroitzapen horiek guztiak gogotik kentzea...»	(91)
usu 'sarritan'	«Bera bezalako maisuak ez direla usu izaten eta Borgeses idazkera bera dela bakan.»	(39)
uztai 'arrakada'	«Bekain-belarri-kokotsetan bi-hiru libera uztai eramaten zituen apaingarri...»	(23)
xeraka 'laztanak eginez, zirrika'	«Hasieran, xeraka eta laztanak hurbildu zituztaz.»	(53)
xextra 'sestra, neurria, maila'	« Xextran sumatzen ditut, bultzaka, tenperatura asko igotzen da...»	(73)
zama 'karga'	«Zaila duk zama horrekin bizitzea.»	(88)



zantzu 'aztarna'	«...izerdi keruaren azpian sumatzen zituen disolbatzaile eta akriliko zantzuek argiro adierazten zuten bezala...»	(93)
zelatatu 'espiatu'	«...poliziak gaztea zelatatu eta, azkenean, bonba-arentatu bat egiteko biltzen ari zen talde bat harrapatu zutela.»	(89)
ziega 'espexeko gela iluna'	«Alberto bakarkako ziega batera eraman dezaten, erabat ezinezkoa baitzaio beste inorekin konpartitzea.»	(95)
zikoitz 'lukurrerua, diru zalea'	«Enma gaztea, Loewenthal zikoitzaren bulegora doa fabrikako huelgan buru egiten duten lankideak salatzeko aitzakian.»	(38)
ziztrin 'txikia, zikina eta itsusia'	«Lisboako portu ondoko etxe zaharkitu bateko gelaxka ziztrin batez, eta Angolatik heldutako neska batez...»	(83)
zozo 'tentela'	«...irakurle zozoenak ere aitortu behar egin du Borges ez dela izan gau bateko zaparrada soila literaturarentzat.»	(39)